

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKADIKO PROGRAMA

JARRAIPEN-MISIOA
KOLONBIA 2019



2019ko uztailearen 13tik 19ra

“Lurra bizitza da, eta bizitza ez da saltzen, ezpada maitatu eta defendatzen”

ACONC (Caucako Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkartea)

Txostenaren egilea:



Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa:



Laguntzaileak:



Bilbo, 2019.

EDUKIEN AURKIBIDEA

ORDEZKARIEN TALDEA.....	4
EGIN DIREN BILERAK.....	5
BALORAZIOA ETA ONDORIOAK.....	7
BIBLIOGRAFIA.....	17

ORDEZKARIEN TALDEA

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria

Paul Ortega Etcheverry, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

Ainara Arrieta Archilla, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako koordinatzaile teknikoa

EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDE ETA BERDINTASUN BATZORDEA

Eva Juez Garmendia, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko burua

Leixuri Arrizabalaga Arruza, Euzko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos taldea

Oihana Etxebarrieta Legrand, Euskal Herria Bildu taldea

Iñigo Martínez Zatón, Elkarrekin Podemos taldea

Carmelo Barrio Baroja, Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra

Eduardo Mancisidor Artaraz, letradua

GIZARTE-GAIEN ETA GIZA ESKUBIDEEN ELKARTEAK

Emigrad@s sin Fronteras: Claudia Alejandra Sepúlveda Giraldo

Mugarik Gabe: Josune Fernández García

Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin (CEAR-Euskadi): Patricia Bárcena García

Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin (CEAR-Euskadi): Leire Lasa Fernández.

EGIN DIREN BILERAK

Buenaventura (Valle del Cauca)

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Erkidego Beltzen Prozesua, Palenque El Kongal (PCN)
- Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoaren Batzordea

Finca la Trinidad, Vereda Lomitas, Santander de Quilichao (Cauca)

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarte (ACONC)
- Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseilua¹
- Caucaoko Iparraldeko Afrikako ondorengoak diren Emakumeen Elkarte (ASOM)

Resguardo Triunfo Cristal Páez (Florida, Valle del Cauca)

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena (ONIC)
- Valle del Caucaoko Eskualdeko Erakunde Indigena (ORIVAC)
- Resguardo Triunfo Cristal Páezeko erkidegoa

Medellín (Antioquia)

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Bermeen Lurralde Mahaia, Antioquian. Bileran, honako hauek parte hartu zuten:
 - San José de Apartadóko Nekazari Elkarte
 - Antioquiako ipar-ekialdeko Biktimen Elkarte
 - Antioquiako ipar-ekialdeko bizikidetzaren eta bakearen aldeko Ekintza Humanitarioaren Korporazioa
 - Gustavo Marulanda Giza Eskubideen Korporazioa
 - Jesús María Valle Giza Eskubideen Korporazioa
 - Preso Politikoen Elkartasun Batzordea (CSPP)
 - Libertad erakunde juridikoa
 - Eskola Nazional Sindikala
 - Sumapaz fundazioa
 - Rios Vivos mugimendua, Antioquia
 - Herrien Kongresuko Mugimendu Sozial eta Politikoa
 - Mujeres que crean korporazioa
 - Antioquíako Erakunde Indigena (OIA)
 - Ruta Pacífica de las Mujeres mugimendua

¹ Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseiluko kide dira: Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarte (ACONC), Erkidego Beltzen Prozesua (PCN), Kolonbiako Erabiltzaile Nekazarien Elkarte Nazionala (ANUC) eta Caucaoko Iparraldeko Kabilo Indigenen Elkarte (ACIN).

Erakunde publikoak

- Herritarren defentsa-bulegoa
- Prokuradoretza
- Gobernuko Idazkaritza (Antioquiako Gobernazioa)

Bogota

Giza eskubideen aldeko elkarteak

- Justiziaren eta Bakearen Aldeko Elizarteko Batzordea

Nazioarteko erakundeak

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH): Herrialdeko ordezkaria

Kolonbiako erakunde publikoak

- Kolonbiako Fiskaltza Nagusia
- Babeserako Unitate Nazionala
- Bakerako Jurisdikzio Berezia (JEP)
- Egia argitzeko, bizikidetzaz sustatzeko eta etorkizunean ez errepikatzeko batzordea (CEV)
- Errepublikako Kongresua

Diplomaziako kideak

- Espainiako enbaxada

BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

EAEko programa **elkartasun politikoa adierazteko tresna** bat da, eta mehatxuen eta jazarpenaren mendeko egoeretan jarduten duten giza eskubideen defendatzaileak **babestea du helburu**. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu ordezkariak lurra bisitatzea.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak, liskarrak izaten diren tokietan. Esperientzia eta ezagutza horiek ekarpen oso garrantzitsua dira gizarte-eraldaketarako gure prozesuetan.

EAEko ordezkariok eskerrak eman nahi dizkiegu giza eskubideen erakundeei, afrikarren ondorengoan eta indigenen erkidegoei eta herri-sektoreei, jaso dugun harreragatik. Horrez gain, esker ona adierazi nahi diegu bizitza duina eta lurraldea babesteko eta gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeke lan nekaezina egiteagatik. Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Erkidego Beltzen Prozesuari (PCN, Palenque El Kongal), Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoaren Batzordeari (Buenaventura), Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarteari (ACONC), Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseiluari, Caucaoko Iparraldeko Afrikako ondorengoak diren emakumeen Elkarteari (ASOM), Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenari (ONIC), Valle del Caucaoko Eskualdeko Erakunde Indigenari (ORIVAC), Resguardo Triunfo Cristal Páez-eko erkidegoari (Florida, Valle del Cauca), Preso Politikoen Elkartasun Batzordeari (CSPP), Antioquiako Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Bermeen Lurralde Mahaiari eta Justiziaren eta Bakearen Aldeko Elizarteko Batzordeari. Eskerrik asko zuen proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak eskuzabaltasunez partekatzeagatik.

Horrez gain, eskertzekoa da, halaber, Kolonbiako erakunde publikoek, Espainiako enbaxadak eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Kolonbiako Bulegoak (OACNUDH) eskaini diguten denbora eta elkarlana.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu, bilerak egin, eta bisitatutako lurraldeetan ikusitakoa kontuan hartu ondoren, honako hau **ADIERAZI NAHI DUGU** EAEko ordezkariok:

LEHENA: Errespetu, babes eta elkartasun sakonena adierazi nahi diegu giza eskubideen defendatzaileei, haien kolektiboari eta erkidegoei; haien lurraldeetan tinko irauten duten horiei eta babes-neurri gisa lurraldeok utzi behar izan dituztenei.

Publikoki aitortu nahi dugu **subjektu politiko eraldatzailetzat** betetzen duten eginkizuna eta herrialdean gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeke eta bizitza duina defendatzeko egiten dute lan zilegi eta funtsezkoa.

BIGARRENA: Bi urtetik gora igaro dira Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPen artean bake-akordioak sinatu zirenetik, eta hainbat eragozpen ikusten ditugu akordiook benetan, eraginkortasunez eta osorik ezar daitezenez; **GATAZKA AREAGOTU EGIN DA**, indarkeria larritu egin da, eta giza eskubideen defendatzaileen eta horien erkidegoen aurkako erasoak, mehatxuak eta kriminalizazioa ugaritu egin dira, batez ere herri indigenetan, herri beltzean eta herri-sektoreetan, hau da, bakearen eta lurraldearen alde modu aktiboan eta ikusgarrian lanean ari diren tokietan.

2018an, gutxienez 110 defendatzaile erail zituzten. Datu horrek Kolonbia **munduko herrialderik arriskutsuenetakoa bihurtzen du giza eskubideen defentsari dagokionez**, NBERen datuen arabera. 2019ko urtarrilaren eta apirilaren artean, gutxienez 51 defendatzaile erail dira². Horren harira, *“El aprendizaje del embujo”* txostena egin dute giza eskubideen 500 erakunde baino gehiagok, eta Europako Parlamentuan aurkeztu dute. Bertan, Iván Duqueren gobernuaren lehen urtearen balantzea egiten da, eta 2018ko abuztuaren eta 2019ko maiatzaren artean **giza eskubideen gutxienez 212 defendatzailearen eta birgizarteratze-prozesuan zeuden FARC-EPko 44 borrokalari ohiren** erailketak zenbatetsi dira.

² PBI (Peace Brigades International).

EAEko ordezkariak aukera izan zuten **Antioquiako**, hots, **eraso-kopuru gehien** erregistratzen duen departamentuetako bateko, Giza Eskubideen Defendatzaileen Bermeen Lurralde Mahaiaren baitan antolatutako erakundeekin egoteko.

Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Bermeen Lurralde Mahaia, Antioquian

Antioquia da, Cauca departamentuarekin batera, eraso kopuru handiena erregistratzen duen lurraldea (470 zenbatetsi ziren 2018an³, eta horietatik 31 hilketak izan ziren). Zehazki, Behe Cauca eta Antioquiako iparraldea dira indarkeria handieneko eskualdeak. Hainbat dira giza eskubideak defendatzeko bermerik ez egoteko arrazoiak; besteak beste: gizarteko liderrak estigmatizatuta daude; beren aurkako krimenen sistematikotasuna ez da aitortzen eta zigorgabetasun historikoa gailentzen da; egitura neoparamilitarrak ez dira desegin; giza eskubideen urraketa larrietan inplikaturako Indar Publikoko funtzionarioak mailaz igo dira⁴; Kolonbiako Estatuak eskaintako babesneurriak ez dira egokiak; giza eskubideen defendatzaileak aipatzen dituzten inteligentziako agiriak ez dira garbitu; eta Bake Akordioa ez da bete.



Eraso gehienak lurralde-bakearekiko konpromisoa duten nekazari liderren aurka egiten dira (% 43,4), hau da, zeharka nahiz zuzenean Bake Akordioa ezartzen parte hartzen duten horien aurka, batez ere Legez Kanpoko Erabilerako Laboreak Borondatez Ordezkatzeko Programa Nazionalari (PNIS) dagokionean. Datu horien atzean honako gertaera hauek daude: paramilitarismoaren oinordekoen taldeek lurraldea kontrolatu eta kokainaren ekoizpen-kate osoarekin jarraitu nahi dute; Kolonbiako Estatuak

praktika horiek ezabatzeko prozesua modu behartuan aplikatu du, eta ez da ezarri erkidegoentzako produktiboak izan daitezkeen ekimenak sortzeko akordiorik.

Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da Hidroituango kasua. Energia sortzeko presa horrek herrialdeko lekualdaketa handienetakoa eragin du, eta mehatxuak eta erailketak ekarri ditu, presa horrekin lotutako lurraldean eta erkidegoetan bizi diren pertsonengan sortzen dituen eragin larriak salatu dituzten pertsonen artean.

Gobernuak *Giza Eskubideen Defendatzaileentzako, gizarte-liderrentzako, lider komunalentzako eta kazetarientzako babes eta prebentziorako ekintza egokiko plana (PAO)* ezarri izanak ez ditu sortu gutxienezko konfiantza-baldintzak gizarte-mugimenduan. Gainera, eskubideen eta partaidetzaren ikuspegia falta dela adierazi dute, eta proposamena prebentzioaren ikuspegitik eta erkidegoen errealitatekin urrun dagoela uste dute.

Medellinoko gune metropolitanoan, gerran daude talde paramilitar desberdinak, auzoen kontrola nork hartuko. Ondorioz, herriarteko lekualdaketak eta mobilizazioak areagotu egin dira, batez ere ikasleen artean. Águilas Negras taldearen mehatxuak egon dira.

HIRUGARRENA: Kezkatuta gaude eta, beraz, kezka hori **salatu** nahi dugu, zenbait lurraldetan bizi den egoeraren ondorioz. Izan ere, **lurraldeotan** interes ekonomikoak gailentzen dira giza eskubideen

³ Iturria: Behatokiko datuak, Antioquiako liderren eta defendatzaileen lanaren arrisku-mailari buruz. Sumapaz fundazioa, Libertad erakunde juridikoa.


⁴ Human Rights Watch.

betearazpenaren eta pertsonen babesaren gainera, eta eragile armatuak lurraldeok okupatzen ari dira, kontrola nor bereganatuko. Talde horiek sistematikoki urratzen dituzte emakumeen, beltzen, indigenen eta nekazari-erkidegoen eskubideak. Egiaztatuta dago **LURRALDEA KENTZEKO** tresna gisa erabiltzen dela indarkeria; hartara, enpresa-inbertsioa sartzen da, besteak beste, ondasun komunak ustiatu nahi dituzten megaproiektuen bidez (hidroelektrikoak, meatzeak, azpiegiturak, portuen hedapenak, esate baterako).

EAEko ordezkariak errealitate hori egiaztatu ahal izan dute hiru lurraldetan, antzina beltzak eta indigenak bizi ziren eremuetan. Populazio horiek babes berezikoak dira, herrialdeko Konstituzioaren arabera.

Buenaventura (Valle del Cauca), Pazifiko kolonbiarra: PORTU INGURUA

Hirian dago herrialdeko portu nagusia. Bertatik, inportazio eta esportazio guztien artean % 60 pasatzen da. Portu-inguru honek indarkeria, mehatxuak eta lurraldearen suntsipena eragin ditu. Milaka giza hilketa izan dira, desagertuak, lekualdaketa behartuak, sexu-indarkeria, indarkeria fisikoa, errekrutatze behartuak, estortsioak eta bahiketak; hala, munduko hiri biolentoenetakoa bihurtu da Buenaventura.



Justiziaren eta Bakearen Legearen ondoriozko desmobilizazio paramilitarrak ez zuen egitura paramilitarrak desagertzea ekarri. Lurraldea kontrolatzen jarraitu zuten. Buenaventuran indarkeria areagotu egin zen, eta auzo eta komunitateak barrena zabaldu. Halaber, paramilitarrek zeregin oso garrantzitsua izan zuten portuetako megaproiektuak martxan jarri eta finkatzen. Talde paramilitarrak arma bidez aritu dira lurraldeak kentzen eta biztanleak presionatzen beren etxebizitzak eta lurraldea utzi ditzaten, inolako konpentsaziorik gabe, heriotza-mehatzuen pean, edo prezio baxuko salmenta behartzen. Gainera, talde horiek lotuta daude Indar Publikoarekin, eta, beraz, zaila da salaketak jartzea.



Kolonbiako gobernu desberdinek garapen ekonomikoaren, korporazio handien eta atzerriko inbertitzaileen interesak jarri dituzte biztanleen giza eskubideekiko errespetuaren gainetik, ingurumenaren gainetik edo lurraldearen gainetik, eta “konstituzioaren aurkako egoera” batera iritsi dira, Konstituzio Gortearen 2004ko T025 epiaik adierazi zuen bezala. Gaur egun, oraindik ez da irtenbiderik ezarri.

Erkidego Beltzen Prozesua (PCN, Palenque El Kongal) eta erkidegoko kideak lagun, **La Inmaculada auzoa**

(5 komuna) ezagutu genuen, Buenaventurako Edukiontzien Terminaleko (TCBuen) instalazioen ondoan, horma batek apenas bereizita. Bertatik bertara egiaztatu ahal izan genituen ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren gaineko eraginak, beste auzo batzuetara ere zabaltzen direnak, besteak beste Punta del Este, Miramar, Santa Cruz eta Santa Fera:

- *Bizimoduen suntsipena:* sartzeko kanala dragatu eta mangladiak moztu direnez, desagertu egin dira arrantzaleen, piangua-biltzaileen eta egur-ustiatzaileen diru-sarrereren iturriak. Gainera, aisialdia, jolasa eta kirola bezalako jardueretarako espazioak galdu dira.
- *Eragin larriak osasunean eta ingurumenean:* Ingurumenean eta entzumenean kutsadura handia eragiten da, portura sartu eta bertatik irteten diren kamioiek eragiten duten zarataren eta hautsaren ondorioz. Gainera, gai kimikoen garraioa dela-eta, areagotu egin dira arnasketako gaixotasunak. 3.000 ibilgailu astun inguru pasatzen dira egunero Barruko Bide Alternotik⁵. Bide hori kaietarako sarbidea errazteko eraiki zen, baina auzoetako sarbideak oztopatzea eragiten du, eta, beraz, arriskua sortzen du bertako pertsonentzat, tartean haurrak daudela.

Biztanleek alegatu dutenez, Kolonbiako Gobernuak ez zekien eta ez daki bertan daudenik; are gehiago, antzinako herri gisa existitzen direla ere ukatzen du. Ingurumen-lizentzia emateko prozesuan, ez zen alde zuzeneko kontsultarik egin, Laneko Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmenean eta 1993ko 70 Legean hala ezarrita dagoen arren. Konstituzio Gorteak arrazoa eman zien erkidegoei, 234 autoan.



2006tik aurrera, La Inmaculada auzoa Buenaventurako sektore biolentoenetako bihurtu zen. 2007an, testuinguru honetan, onibarrak erosten hasi zen TCBuen. Paramilitarrek etxebizitzak okupatu zituzten eta mugikortasunerako ordutegiak ezarri. Harrezkero, are arriskutsuagoa da lurraldea defendatzea.

⁵ Bide-azpiegiturako proiektu bat da, eta horren osagarri da Buenaventurako Eskualdeko Portu Sozietatearen (SPRB) eta TCBUENen portu-jarduera. 12,5 kilometroko saihezbide bat da, eta, horren bidez, saihestu egiten da hiriko erdigunetik ibilgailu astunak pasatzea. Santa Fe auzoko (5 komuna) pertsonentzat, saihezbidea eraikitzean auzoa bitan banatu zen, eta, beraz, ehunka familia birkokatu behar izan ziren eta kalteak eragin ziren hondakin-uren sistema eskasean. Ondorioz, era guztietako infekzioak egon ziren.



Finca La Trinidad, Vereda Lomitas, Santander de Quilichao (Caucako iparraldea): MEGAPROIEKTU HIDROELEKTRIKOAK (La Salvajina presa) eta MONOLABOREAK (azukre-kanabera)

Caucako Iparraldeko eskualdea historikoki afrikarren ondorengoan, indigenen eta nekazarien erkidegoek okupatu dute. Kokapen geostrategikoa du, Kosta Pazifikoarekin eta herrialdearen erdigunearekin lotuta baitago, eta aberastasun hidrikoak dauzka (Cauca ibaia eta haren ibaiadarrak). Ondorioz, oso erakargarria da baliabide naturalak ustiatu eta “garatzeaz” arduratzen diren proiektu handientzat. Azukre-kanaberen monolaboreen eta La Salvajina (Suárez) megaproiektu hidroeletrikoaren⁶ eraikuntzaren eta ustiapenaren zioz, antzinako lurrak kendu, nahitaezko lekualdaketak eragin eta ingurumen-ondorioak sortu ziren. Horrez gain, kontuan hartzekoak dira pinu eta eukaliptoaren laboreak, legez kanpoko meatzaritza (urrea eta hidrokarburoak), legez kanpo erabiltzen diren laboreak eta narkotrafikoa.

Landa-jabetzen kontzentrazio handia dago eskualdean, batez ere kanaberen nekazaritza-industriaren esku. Ondorioz, emankortasun altuko lurzoruetan baliabide hidrikoak, makinak eta nekazaritzako gai kimikoak intentsiboki erabili dira, eta, beraz, lurron emankortasuna kaltetu.

Vereda Lomitas jarduera paramilitarraren epizentroa izan da, eta bertan batu ziren EAEko ordezkariak Caucako Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarteko (ACONC), Caucako Iparraldeko Afrikako ondorengoak diren emakumeen Elkarteko (ASOM) eta Caucako Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkarteko (ACIN) kideekin. Artean indarkeriak Caucako iparraldea —“gune gorri” izendatua— astintzen zuela, La Salvajina presa, kanaberaren monolaboreak eta aduana-zergarik gabeko eremuak eraiki eta finkatu ziren. La Tomako Kontseilu Komunitarioko (Suarez, Cauca) lider batzuen aurkako mehatxuen lekuko izan ziren EAEko ordezkariak. Izan ere, bisitan zehar beren lurraldea okupatzeko mehatxuak jaso zituzten.

⁶ EAEko ordezkariak aurrez aurre egiaztatu ahal izan zituzten La Salvajina presak 2014an lursailean sortutako eraginak, Hondurasko Kabildo Indigenetako (Morales, Cauca) eta Cerro Tijeraseko (Suárez, Cauca) lider indigenen eskutik. Bisita horretako ondorioak hemen jaso dira: <https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak-proiektua/web01-s1lehbak/eu/>



Erkidego afrokolonbiarrentzat, lurraldea bizi-espazio bat da, zeinak beren beharrianak asetzeko baliabideak ematen baitizkie. Gainera, jendeak bere kultura, mundu-ikuskerak, harreman soziokulturalak eta nortasuna sortu eta birsortzeko lekua da. Beltzen herria gobernu-sistema propioaren bidez antolatzen da. ACONCen barruan guztira 43 kontseilu komunitario daude, 10 udalerritan kokatuak. Horietatik 11 titulazio kolektiboko prozesuetan daude. La Finca La Trinidad da horietako bat, eta bertan bildu ginen. Gaur egun, Ingenio

Cauca (azukre-kanaberaren ustiapena) enpresaren titulartasun pean dago, 10 urteko ustiapen-aldirako. Lurrak ordezkatzeko prozesuetan daude 5 kontseilu komunitario, eta 36 daude konponketa kolektiboaren pean. Beltzen herriak aldarrikatzen dituen 70.000 hektareetatik soilik 3.500 itzuli dira.



Justizia eta gobernu propioaren sistema honez eta babes kolektiboko neurriez (guardia cimarrona deritzana) gain, beste prozesu batzuk ere kontuan hartu behar dira, besteak beste Palenqueko hizkuntzaren eta ohituren errekonstruzioa, eta herri beltzen arteko barneko harremanak.

Caucako iparraldeko erkidegoek berariaz aldarrikatzen dute beren lurralde etnikoen antzinatasuna eta aberastasun kultural handia. Beltzen herria, herri indigenak eta nekazarien erkidegoak Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseilu⁷ baten baitan antolatu dira, eta elkarrekin egin dute Bizitza Plana izeneko lana (*Plan de Vida*).


Gobernu Nazionalarekin sinatutako eta hitzartutako 300 akordio baino gehiago daude oraindik bete gabe.

Resguardo Triunfo Cristal Páez (Florida, Valle del Cauca): INTERESEN TALKA

Resguardo Triunfo Cristal Páez —nasa herria bizileku antzina— oparo ditu ura, basoa eta meatzeak. Lurralde honetan 300 aintzira daude, sakratuak bertokoentzat, bai eta hainbat megaproiektu ere, lurraldeko biziraupena arriskuan jartzen dutenak: petrolioaren ustiapena, azterketa sismikoak eremuetan mineralak bilatzeko, mea-ustiapenerako emakidak, batez ere urrearekin lotuta (6 Florida udalerrian eta 5 Tolima departamentuan – ondoan-), El Quimbo presa, sare elektrikoaren eraikuntza, Calira ura eramango duen eskualdeko akueduktu baten eraikuntza (“gordailu” bezalako terminoak erabiltzen ari dira, preseki buruz hitz egin beharrean) eta Pazifikoa - Orinoquí lotura. Horrez gain, Armadaren mendi altuko batailoiak ere badaude, zeinak estrategikoki kokatzen baitira toki horietan, obrak zaintzeko. FARC-Epekin Bake Akordioa sinatu aurretik, matxinatuen aurka borroka egiteko eiz zeuden lurralde horietan.

Beren lurralde-defentsaren eta erresistentziaren ondorioz, mehatxu ugari egin dira gizarteko liderren aurka, batez ere EPLren eta Águilas Negras-en eskutik. EAeko ordezkarien bisitaren ostean, azken horiek sinatutako panfleto batek mehatxu egin zien hainbat buru indigenari, tartean María Raquel Trujillo Mestizori. Gobernatzaile ohia, lider indigena eta erkidegoko kidea da bera, eta Babeserako Euskal Programan parte hartu zuen 2019an.

⁷ Etniarteko Kontseiluko kideak honako hauek dira: Erkidego beltzen Prozesua (PCN), Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarte (ACONC), Caucaoko Iparraldeko Kabilo Indigenen Elkarte (ACIN) eta Kolonbiako Erabiltzaile Nekazarien Elkarte Nazionala (ANUC).



Nasa erkidegoak bere lurraldea defendatzen du lur-gabetze ororen aurrean, eta, horretarako, bere nortasuna berresten du (BATASUNA – LURRA – KULTURA – AUTONOMIA), gobernu eta justizia propioen sistemen bidez nahiz babes kolektiboko eta lurralde-kontrolako mekanismoen (tartean guardia indigena) bitartez. Enpresa multinazionalen ekintzaren aurrean, erresistentzia erakusten dute, hain zuzen ere, haurren prestakuntzaren, espiritualtasunaren eta

antolaketa indartuaren bidez. Horretarako, beren Bizi Planak dituzte: Hezkuntza, Jurisdikzio indigena berezia, Medikuntza tradizionala, Espiritueltasuna, Guardia indigena eta Ekonomia propioa.

Ondorioz, antzinako lurraldeez jabetzeko gerra-estrategiarekin batera, beren aurkako prozesu judizialak irekitzen dira, inbasioa bezalako delituen zioz, lurrak berreskuratu eta berroneratzearen alde egiten duten lana aitzakia hartuta. Eta, esparru horretan, agintaritzen aurkako judizializazioak aurreikusi dira.

Etapari berri baten aurrean gaudela jakinarazi digute: akordio-ostea. Etapari honetan, herri indigena batzuk desagertzeko arriskuan daude, jasaten dituzten askotariko indarkerien ondorioz. Iván Duqueren gobernuaren lehen urtean, hirukoiztu egin zen biktimak eragin zituzten gertaeren kopurua, eta Babeserako Unitate Nazionalak ez dio erantzun eraginkor eta efektiborik eman egoera horri.

BOSGARRENA: Gure kezka adierazi nahi dugu indarkeria horiekin lotutako **zigorgabetasun**-maila handia dela eta. Zigorgabetasuna are handiagoa da, gainera, lurra, lurraldea eta ondasun erkideak defendatzen dituzten herri indigenen, beltzen herriaren eta nekazari-komunitateen kasuan. Hiri-sektoreek jasaten dituzten kasuak ere esangura berezikoak dira. Gertaera horien ziozko ikerketetan emaitzarik ez dagoenez, gainera, halakoak errepikatu egiten dira, eta indarkeria areagotu.

2018ko urtarrilaren 27an, Temístocles Machado lider komunitarioa erail zuten. Bera izan zen Buenaventurako *Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoaren* sustatzaileetako bat (aurrerago azalduko dugun moduan). Hiru pertsona atxilotu dira, eta beste 7 atxilotze-agindu daude bere erailketaren arduradun materialen aurka. Hala ere, gertaera horren egile intelektuala oraindik ez da zehaztu.

SEIGARRENA: Ikusi ahal izan genuen larriki handitzen ari dela **GIZA ESKUBIDEEN DEFendatzaileen aurkako jazarpenera judiziala**. Egiaztatu genuenez, haien aurkako atxiloketa masibo eta hautazkoak eta prozesu judizialak estrategikoak dira lurraldeetan erresistentzia-prozesuak, pentsamendu kritikoa eta oposizio politikoa desegiteko.

Prozesu horietan, kasu askotan, bermeak urratzen dira —errugabetasunaren presuntzioa, esaterako— eta, sarritan, giza eskubideak defendatzeko eta akordio eta legeak bete daitezela aldarrikatzeko egiten dituzten mobilizazio baketsuetan parte hartu ondoren aktibatzen dira. Hala gertatu zen, esaterako, Buenaventuran, *Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoaren* kasuan, 2017an, edo **Bizitzaren Babesaren, Lurraldearen, Demokraziaren, Justiziaren eta Bakearen aldeko Biltzarrean**, 2019an.

- *Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoa*: Buenaventurako herritarrak kalera irten ziren, estatuak ez zuelako erantzunik ematen oinarritzko giza eskubideak (osasuna,

hezkuntza, ura, saneamendua, lurraldearen defentsa, giro sanoa, enplegu duina, indarkeriaren biktimetzako justizia eta arreta, aisialdirako espazioak, kirola eta kultura) eskuratzeko orduan zeuden hainbat eskariri. Lanuzteak iraun zuen 22 egunetan, erkidegoek berriaz salatu zuten Istiluen Aurkako Eskuadro Mugikorak (ESMAD) gehiegizko indarkeria baliatu izana edo Indar Publikoa etxebizitzetara sartu izana, beste gai larri batzuen artean.



- Bizitzaren Defentsaren, Lurraldearen, Justiziaren eta Bakearen aldeko Biltzar Soziala: Aurtengo martxoaren 10ean, Kolonbiako hego-mendebaldeko gizarte-sektoreak, nekazariak, beltzen erkidegoak eta herri indigenak altxatu ziren Biltzarrean, eta, egunak aurrera joan ahala, aldarrikapen horiek herrialdeko beste departamentu batzuetara ere zabaldu ziren. Biltzarra herrien biziraupena eta bizimodu ona bermatzeko manifestazio baketsua da, eta hainbat arrazoi tarteko sortu zen: Bake Akordioak ez ziren betetzen ari, eta Kolonbiako Gobernuak Bakerako Jurisdikzio Berezia oztopatzen ari zen; gatazka armatua berriz osatzen ari zenean, pasibotasuna gailendu zen; ZIDRES (landa-garapen ekonomiko eta sozialeko interesguneak) delakoak sortu ziren; gizarte-liderraren estigmatizazioa, kriminalizazioa, mehatxuak eta eraiketak igo egin ziren; eta sistematikoki urratzen ari ziren Gobernuarekin hitzartutako mahaietan ezarri ziren akordioak. Kolonbiako Gobernuaren erantzun militarren ondorioz, larriki urratu ziren giza eskubideak. Martxoaren 21ean, Daguán (Valle del Cauca) sarraskia egon zen ORIVACEko guardia indigenen aurka, eta, ondorioz, 8 guardia indigena hil ziren, bai eta hainbat zauritu eragin ere.

Protesta baketsurako eskubidea baliatzean, kasu askotan, mehatxuak eta jazarpenak areagotzen dira, bai eta prozesu judizialak ireki ere mobilizazioetan lider izan diren pertsonen aurka.

- Uztailaren 26an, EAEko ordezkariak Launezte Zibikoaren Batzordearekin bildu eta egun gutxira, **Carlos Tobar Justiziarako Sarbide Mahaiko kideak** atentatu bat jasan zuen bere etxean. Hainbat gizonen eraso zuten, bere etxera sartu eta tiro eginda. Santa Sofía osasun-zentrora eraman behar izan zuten Tobar.
- Bestalde, **Víctor Hugo Moreno Mina, Caucaoko Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarteko (ACONC) aholkulari nagusia**, mehatxuak jasaten ari da 2014az geroztik, lurraldea babesteko ekintzak zuzentzeagatik. Harekin ere egon ziren EAEko ordezkariak, Finca La Trinidad-en (Vereda Lomitas, Santander de Quilichao). Biltzarrean Caucaoko Iparraldeko erkidego beltzen bozeramaile gisa parte hartu ondoren, areagotu egin da haren aurkako jazarpena. Iragan maiatzaren 4an, Finca La Trinidaden bertan sarraski-saiakera bat jasan zuen, PCN, ACONC eta ASOMeko beste 15 liderrekin bilduta zegoenean. Uztailaren 31n, Nazioko fiskalorde nagusiarekin egindako bileraren esparruan, berretsi zen prozesu judizial bat zabaldu zela haren aurka, Biltzarrean parte hartzeagatik.
- Halaber, giza eskubideen defendatzaileen aktibismo sozial eta politikoagatik eta Lanuzte Zibikoan aktiboki parte hartzeagatik ere hasi izan dira beste prozesu judizial batzuk. Halakoa da **PCNko Danelly Estupiñán Valencia liderraren** kasua. Danelly Euskadiko Babeserako Programan egon zen 2018an, eta gaur egun demanda bat dago haren aurka, irain- eta kalumnia-delituak leporatzen baitzaizkio. Hain zuzen ere, haren aurkako mehatxuak eta jazarpenak areagotu eta Fiskaltzara igorri direnean hasi da prozesu judizial hau, haren aurkako atentatu baten aitzindari.

ZAZPIGARRENA: Balioesten dugu nolako aurrerapenak egiten dituen Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak giza eskubideen defendatzaileen aurka egindako delitu oro jazartzeko ikerketa- eta indar-estrategia definitzeko orduan, eta horiek ezarri eta indartu daitezten animatu nahi dugu. Estrategia horretan aurreikusitako 8 lan-lerroak benetan ezarri gero, zalantzarik gabe, hobetu egingo da pertsona horien babes eraginkorra. Izan ere, zigor-ikerketaren metodologian eta estandarizazioan hobekuntzak sartzeaz gain, honako alderdi hauek ere jorratuko dituzte:

- Eguneroko ikerketa-lanean sartuko dira giza eskubideen defendatzailearen kontzeptua, haren ezaugarriak, hilketak ikerketa hobetzeko garatutako tresnak eta nazioarteko estandarrak.
- Lehen lan-hipotesi gisa ulertuko da ikertzen ari diren gertaerak giza eskubideen defentsan egindako lanagatik sortu direla —bai akusazioak direnean, bai salaketak direnean— , eta, beraz, ikuspegi espezifikoa behar dutela.
- Defendatzaileen eta horien kolektiboen jarduera politiko edo sozialarekin lotutako kasuak lotuko dira, eta, beraz, errazago identifikatu ahalko dira jazarpen-patroiak, judizializazioaren bidez.

Eta bereziki eskertzen dugu **Gobernuaren eta** (Buenaventura) lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko **Lanuzte Zibikoaren Batzordearen artean** 2017ko ekainaren 6an **hartutako akordioen jarraipena egiteko konpromisoa**.

ZORTZIGARRENA: Eskertzen dugu nolako ahalegina egin duen Babeserako Unitate Nazionalak (UNP), arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileentzat segurtasun-neurriak ezartzeko orduan, bai eta zer-nolako arduraz jokatu duten Babeserako Euskal Programan parte hartu duten giza eskubideen defendatzaileei ezarritako ereduak berrikusteko, haien osotasun fisikoa bermatze aldera.

Hori dela eta, EAEko ordezkariak berariaz **ERREKLAMATZEN** dute eten dadila oposizio politikoaren eta giza eskubideen alde egindako lanaren **kriminalizazioa eta indarkeria**, eta, horretarako, honako **GOMENDIO** hauek egin dituzte:

LEHENA: Kolonbiako erakundeek **prebentzio eta babes kolektiboko mekanismoak** ezarri behar dituzte, besteak beste honako estrategia hauen bidez:

- Publikoki aitortzea eta balioa ematea giza eskubideen defendatzaileek, antolakundeek eta kolektiboek egindako ekarpenari, gizarte-justizian oinarritutako bake integrala eraikitzeke orduan, biktimizazio bikoitzak, estigmatizazioa eta epaiak saihestuz.
- Arrisku-kontzeptua areagotzea, eremu psikosozial eta espirituala jasota eta etniaren eta generoaren arabera azterketa diferentziala txertatuta.
- Gizarte-erakundeek eta erkidegoek giza eskubideak eraginkortasunez betetzen dituztela bermatzeko berme politikoak sustatzea, bizitarako eskubidea eta gizarte-protestarako eskubidea barne.
- Pertsona hauek kriminalizatzen dituzten ekintzak ezabatu eta benetan zigortzea.

BIGARRENA: Bi erronka nagusi daude: antzinako herriak (besteak beste herri indigenak eta herri beltzak) aintzatestea eta haien lurraldeen benetan legezkatzea Landaguneetan ere, erakundeen presentzia areagotu beharko litzateke, ez soilik Indar Publikoa hedatuz, baizik eta batez ere behar diren politika publikoak abiaraziz, gizartean, ekonomian eta kulturen garapena bermatzeko, etniaren eta generoaren ikuspegitik.

HIRUGARRENA: Zigorgabetasun-maila altua denez, beharrezkoak dira ikerketa azkar eta inpartzialak, giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxu, eraso eta erailketen arduradun material eta intelektualetara eta egitura arduradunetara iristeko. Horretarako, hirugarrenen interes ekonomikoen eta lurren berrezarpenaren arteko harremana zehatz ikertu behar da, bai eta horiek legez kanpoko egitura armatuekin eta legez kanpoko ekonomiekin duten lotura aztertu ere. Jarraipen berezia egingo dugu Temístocles Machadoren erailketaren gainean, Carlos Tobarren aurkako erasoaren gainean, María Raquel Trujillo Mestizo lider indigenaren aurkako mehatxuen gainean, Víctor Hugo Moreno Minaren aurkako prozesu judizialaren gainean eta Danelly Estupiñán Valenciaren egoeraren gainean.

LAUGARRENA: Nahitaez bete behar diren giza eskubideen aldeko nazioarteko tratatuak aplikatzea, besteak beste, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena. Izan ere, hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera, lurren jabetzaren aspaldiko tituluen kontra eta bizitzaren aurka egiten duten

enpresak instalatu aurretik, lurralde horietako biztanleei galdetu behar zaie, eta kontsultek askeak eta informatuak izan behar dute. Halaber, gai horren gaineko Kolonbiako legedia aplikatu behar da (Konstituzio Politikoa, 1993ko 70 Legea).

BOSGARRENA: Elkarrizketa zuzeneko espazioak indartu behar dira Kolonbiako Gobernu eta erakundeen eta gizarte zibilaren artean —hor dira, besteak beste, Bermeen Mahai Nazionala, Nekazaritzako Gailurreko Berme Batzordea eta elkarrizketan laguntzen duten beste batzuk—.

SEIGARRENA: Bake-akordioa benetan, eraginkortasunez eta osorik ezartzearen aldeko apustuak ondorio zuzena izango du lurraldeetan bizi den krisi humanitario eta segurtasuneko larria leuntzeko orduan, giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuak eta indarkeria nahiz zigorgabetasun historikoa murriztu ahala. Modu oso positiboan lagun dezakete horretan Segurtasun Bermeen Batzorde Nazionalaren deialdiak, Egia, Justizia, Erreparazio eta Ez Errepikapenaren Sistema Integralaren babesak (akordioaren funtsezko alderdia berau) edo kapitulu etnikoaren betearazpenak.

Esparru honetan, berariaz azpimarratu nahi dugu erabateko konpromisoa eta babesaren ematen diegula ezarpen horri eta Bakerako Jurisdikzio Bereziak (JEP), Egia argitzeko, bizikidetzaren sustatzeko eta etorkizunean ez errepikatzeko Batzordeak eta Desagertutako pertsonak bilatzeko Unitateak egindako lanari.

ZAZPIGARRENA: Premiazkoa da, gainera, historikoki herrialdeko erkidego etnikoekin eta erakunde sozial eta herrikoiekin itundutako akordioak betearaztea, kontuan hartuta horietako asko borondate politikoaren menpe daudela.

ZORTZIGARRENA: Gizarte-antolakundeei eta erakundeei dei egiten diegu, lurralde guztietan bakearen eta bizikidetzaren benetako kultura sortzeko lana indartu dezaten. Eta, beste behin, gure elkartasuna adierazi nahi diegu Kolonbian indarkeriarik eta miseriarik gabeko herrialde bat eraikitzearen alde egunero lanean diharduten pertsona, erkidego eta erakunde guztiei, eta berretsi haiei laguntzeko eta babesaren emateko konpromisoa dugula. Hala, adi erreparatuko diegu haien egoerari, eta segurtasun-baldintzetan lan egiten dutela zaindu. Halaber, kontu egingo diegu Babeserako Euskal Batzordean parte hartu duten defendatzaileei eta horien erakundeei (PCN, ACONC, ONIC eta CSPP).

“Bakearen indarra gara, erresistentzian dagoen indarra. Heriotza dakarkigun arren, bizitza defendatzen dugu”

Resguardo Triunfo Cristal Páez, Florida (Valle del Cauca)

BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK

Amnistia Internazionala (2018). *Informe país, Colombia 2017/2018*.

Caucako Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkartea (ACONC), Caucaoko Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkartea (ACIN), Erkidego Beltzen Prozesua (PCN), Kolonbiako Erabiltzaile Nekazarien Elkartea Nazionala (ANUC) (2018): *Plan de Vida Interétnico e Intercultural del Norte del Cauca*. Kolonbia, 2018.

CEAR-Euskadi (2018): *Informe Delegación Vasca. Misión de seguimiento al retorno, Colombia 2018*.

Memoria Historikoaren Zentro Nazionala (2015): *Buenaventura: un puerto sin comunidad*. Bogota, 2015.

Kolonbiaren, Europaren eta Ameriketako Estatu Batuen Koordinazioa, NODO Antioquia (2018): *Informe sobre la situación de las y los defensores de derechos humanos en Antioquia 2018*. Medellin, Kolonbia, 2018.

Nazio Batuen Erakundea (2018): *Declaración de Fin de Misión (20 de noviembre – 3 de diciembre de 2018). Relator Especial de las Naciones Unidas sobre la situación de los Defensores y Defensoras de Derechos Humanos*.

Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena (ONIC): *Informe sobre violaciones a los derechos humanos, derechos territoriales de los pueblos indígenas en Colombia*. Herri Indigenen Giza Eskubideen, Giza Eskubideen eta Bakearen ONICEko aholkularia den Aida Marina Quilcuék aurkeztua Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordean (CIDH) - Audientzia - 171 saio-aldia. Sucre, Bolivia, 2019ko otsailaren 15a.

Somos Defensores programa (2019): *Defensores, ¿el juego final? Informe semestral enero – junio 2019. Sistema de Información sobre Agresiones contra Personas Defensoras de Derechos Humanos en Colombia – SIADDHH-*. Bogota, 2019.

Somos Defensores programa (2019): *La naranja mecánica. Informe Anual 2018. Sistema de información sobre Agresiones contra Personas Defensoras de Derechos Humanos en Colombia – SIADDHH-*. Bogota, 2019.

Taula Catalana per la Pau i els Drets Human a Colòmbia: *Asedio a las comunidades: Los impactos de una empresa catalana, Grup TCB, en Buenaventura, Colombia*. Bartzelona.

WEBGUNEAK

Caucako Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkartea (ACONC)

<http://www.aconckekelo.org/>

CEAR-Euskadi: Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa

<https://www.cear-euskadi.org/que-hacemos/proteccion-a-defensoras-de-los-derechos-humanos/>

CEAR-Euskadi: Defendatzaileak babesten

<https://defensoras.cear-euskadi.org/eu/index-eu.html>

Preso Politikoko Elkartasun Batzordea (CSPP)

<http://www.comitedesolidaridad.com/>

Emigrad@s sin Fronteras elkartea

<http://emigradossinfronteras.org/wp/>

Mugarik Gabe

<https://www.mugarikgabe.org/eu/>

Valle del Caucaoko Eskualdeko Erakunde Indigena (ORIVAC)

<https://www.onic.org.co/comunicados-regionales/356-orivac-organizacion-regional-indigena-del-valle-del-cauca>

Erkidego Beltzen Prozesua (PCN)

<https://renacientes.net/>